ehuBiblioteka



2026-2028

JARDUERA PLANA

UNIBERTSITATE LIBURUTEGIA



:: UNIBERTSITATEKO BIBLIOTEKAKO 2026-2028 JARDUERA PLANA

01:: SARRERA	**3**
02:: LAN ILDOAK	**5**
Ikerketa eta zientzia irekia	5
Irakaskuntza eta ikaskuntza	6
Ezagutza eskuratzea	7
Antolaketa, pertsonak eta gobernantza	7
Eraldaketa digitala eta berrikuntza	8
03:: ZEHARKAKO ARDATZAK	**9**
Komunikazioa	9
Konpromiso soziala: berdintasuna, inklusioa eta garapen jasangarria	9
1.ERANSKINA:: UNIBERTSITATEKO BIBLIOTEKAKO LANTALDEAK	**10**
2.ERANSKINA:: EHU-KO PLAN ESTRATEGIKOA: konbergentzia eremuak	**13**

Unibertsitateko Bibliotekaren 2026-2028 aldirako jarduera ildo nagusiak bideratzen dituen esparru dokumentua

:: LAN-ILDOAK


Ikerketa eta zientzia irekia
1
Bibliotekaren eginkizuna bultzatzen dugu unibertsitateko ikerketa ekosistemako eragile estrategiko gisa. Laguntzeko baliabideak eta zerbitzuak eskaintzen ditugu ikerketa ziklo osoan, zientzia irekia sustatuz eta sortutako ezagutzaren ikusgarritasuna eta inpaktua bultzatuz.
Irakaskuntza eta ikaskuntza
2
Biblioteka oinarrizko zerbitzua, irakaskuntzari eta ikaskuntzari laguntzeko. Ikaskuntzan, irakaskuntzan eta bizitzan zehar informazio gaitasunak eta gaitasun digitalak eskuratzen laguntzen duten zerbitzuak, baliabideak eta espazioak eskaintzen ditugu
Ezagutza eskuratzea. Bildumak eta espazioak.
3
Informaziorako sarbide inklusibo, jasangarri eta eraginkorra bermatzen dugu, kalitatezko bildumak eta baliabideak kudeatuz, eta ikasteko, lankidetzan aritzeko eta sortzeko modu berrietara egokitutako gune fisiko eta birtualak garatuz.
Antolaketa, pertsonak eta gobernantza
4
Kalitatera bideratutako antolaketa eremua indartzen dugu, honako hauetan oinarritzen dena: lankidetza, barne komunikazioa eta gobernantza eraginkorra, gardena eta estrategia instituzionalarekin lerrokatuta dagoena.
Eraldaketa digitala eta berrikuntza
5
Bibliotekaren bilakaera bultzatzen dugu, sortzen ari diren teknologiak txertatuz eta zerbitzu digital aurreratuak garatuz, aldatzen ari den ingurune batera etengabe egokitzen dela bermatuz.
BIBLIOTECA UNIVERSITARIA EHU
PLAN DE ACTUACIÓN 2026-2028



:: 01 / SARRERA

2023-2025 aldirako Jarduera Planaren indarraldia amaitzearekin batera, EHUbibliotekak 2026-2028 aldian bere jarduna bideratuko duen jarduera esparrua aurkeztu du. Dokumentu honek, bibliotekako zerbitzuak unibertsitateko kideen premietara eta ingurune akademiko, zientifiko eta teknologikoan gertatzen ari diren aldaketetara egokitzen eta garatzen jarraitzeko lan ildo eta ekintza nagusiak zehazten ditu.

Plan hau partekatutako hausnarketa prozesu baten emaitza da. Prozesu horretan, bibliotekako langileek aktiboki parte hartu dute, eta langile horien esperientziak datozen urteetarako erronka nagusiak identifikatzen lagundu du.

Etengabe bilakaeran dagoen ingurunera egokitzeko beharrari erantzuten dio planak. Eraldaketa digitala, komunikazio zientifikoko eta ikerketa ebaluatzeko ereduen bilakaera, zientzia irekiaren aurrerapena, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesu berriak eta adimen artifizialean oinarritutako tresnen agerpena egoera konplexua eratzen ari dira, bibliotekako zerbitzuak, baliabideak eta espazioak etengabe egokitzea eskatzen duena.

Aldez aurreko azterketari esker, ziklo berri honi aurre egiteko oinarri sendoa osatzen duten arrakasta faktoreak identifikatu ahal izan dira: EHUbibliotekaren aintzatespen eta ospe instituzionala; bertako langileen esperientzia eta kualifikazioa; finkatutako zerbitzu zorroa, unibertsitateko kideek balioesten dutena; irakaskuntzako eta ikerketako beharretara egokitutako neurri egokia duen bilduma fisiko eta digitala; gure inguruko biblioteka esperientziarekin lotura bermatzen duten lankidetza sare eta proiektuekin atxikipena; eta erakargarriak izan daitezkeen instalazio eta lanerako guneak.

Era berean, badugu gure errendimendua hobetzeko jarduerak eskatzen dituzten egoera eta faktoreen berri: barne komunikazioko eta gure zerbitzuen hedapeneko gabeziak, ikasleekiko deskonexio mailakatua, lan kargen banaketa desorekatua edo batez ere duela gutxitik langile kualifikatuak eskatzen dituzten lanpostu jakin batzuk betetzeko izaten ari garen arazoak.

Oinarri horien gainean, eta gure indarguneak sendotzeko eta gure ahuleziak zuzentzeko asmoz, EHUbibliotekak unibertsitatearen misioari egiten dion ekarpena indartu nahi du, eta, hirurtekoaren amaieran, unibertsitatearen funtzionamendurako funtsezko tresna gisa duen aitorpena finkatu.

Aurreikusitako jarduerak bat datoz unibertsitatearen helburu estrategikoekin, batez ere arlo hauetan: ikerketari eta zientzia irekiari laguntzea; irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak hobetzea; ezagutzaren transferentzia eta inpaktu soziala; kultura sustatzea; gaitasun digitalak garatzea eta inklusiboak eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin konprometituta dauden unibertsitateko kideak sendotzea.

Esparru horretan, Plana bost ardatz estrategikotan egituratzen da —**Ikerketa eta zientzia irekia; Irakaskuntza eta ikaskuntza; Ezagutza eskuratzea: bildumak eta espazioak; Antolaketa, pertsonak eta gobernantza; eta Eraldaketa digitala eta berrikuntza**—, planaren indarraldirako aurreikusitako jarduerak inspiratuko dituen zeharkako ardatz batzuekin osatuta.







:: 02 / LAN ILDOAK

1 :: Ikerketa eta zientzia irekia

Bibliotekaren eginkizuna bultzatzen dugu unbertsitateko ikerketa ekosistemako eragile estrategiko gisa. Laguntzeko baliabideak eta zerbitzuak eskaintzen ditugu ikerketa ziklo osoan, zientzia irekia sustatuz eta sortutako ezagutzaren ikusgarritasuna eta inpaktua bultzatuz.

1. **EHUko produkzio zientifikoaren** kudeaketan eta hedapenean aurrera egitea.
    a. Ekoizpen Zientifikoaren Atariaren garapena. Horren funtzionalitateak areagotzea, “Finantzaketa” atala eta horren itemak ezartzea, eta inpaktu soziala neurtzea ahalbidetuko duen funtzionaltasuna txertatzea. ADDI, Dialnet ataria eta Inv-ES (Ekoizpen Zientifikoko Unibertsitate arteko Ataria) arteko elkarreragingarritasunaren garapena.

2. **Sarbide irekia eta zientzia irekia** ahalbidetuko duten neurriak bultzatzea.
    a. Zientzia irekiari buruzko politika instituzionala onartzea.
    b. Zientzia irekia zabaltzeko jarduerak egitea EHUn.
    c. AddiData datuen erakunde gordailua txertatzea.
    d. Editoreekin akordio eraldatzaileak negoziatzen jarraitzea, CRUE barruan eta kanpoan.
    e. ADDI erakunde gordailua hobetzea. DSpace-tik eguneratutako bertsio batera migratzea eta gordailuaren kalitatea ebaluatzea (FECYT kalitate bereizgarria).
    f. PLATICA plataforman parte hartzea Rebiun sareko lantaldeen bitartez.

3. **IRIentzako zerbitzu pertsonalizatuak** indartzea.
    a. Lehendik dauden zerbitzuak finkatzea. Ikerketa egiaztatzeko eta ebaluatzeko prozesuetan laguntzea, ikertzaile profilak sortzea, egile eskubideak eta argitalpenen kalitatea.
    b. Zerbitzu berrien eskaintza. Ikerketako datuak kudeatzeko eta gordetzeko planetan aholkularitza.

4. EHUko **ikerketa jarduera aztertzeko** tresnak sendotzea.
    a. Bibliometria Unitatea sendotzea.
    b. Ekoizpen Zientifikoaren Atariaren erabilera zabaltzea ikerketa ebaluatzen laguntzeko tresna gisa.

2 :: Irakaskuntza eta ikaskuntza

Biblioteka oinarrizko zerbitzua, irakaskuntzari eta ikaskuntzari laguntzeko. Ikaskuntzan, irakaskuntzan eta bizitzan zehar informazio gaitasunak eta gaitasun digitalak eskuratzen laguntzen duten zerbitzuak, baliabideak eta espazioak eskaintzen ditugu

1. Gure **bildumak** garatzea, zabaltzea eta errentagarri egitea.
    a. Baliabide bibliografikoak hobeto zabaltzea unibertsitateko kideen artean.
    b. Oinarrizko eta gomendatutako bibliografiak eskuratzeko eta zabaltzeko plana garatzea. Liburu elektronikoa zabaltzea.

2. **Prestakuntza planak** hobetzeko plan bat diseinatzea, egungo egoeraren analisia eta titulazioen eta ikasleen benetako premien azterketa oinarri hartuta.
    a. Prestakuntza programak berrikustea. AA erabiltzera eta horri buruzko begirada kritikoa izatera bideratutako edukiak jasotzea.
    b. Irakasle hasiberrien prestakuntza eta laguntza, haien irakaskuntza- eta ikerketa-beharrei erantzuteko eta ikasleen prestakuntza-jardueretan haien lankidetza sustatzeko.
    c. Onlineko prestakuntza eta bideotutorialen eskaintza handitzea.
    d. Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuarekin eta irakaskuntzako jarduerak diseinatzeko proiektuekin lankidetza sendotzea.
    e. Prestakuntza aukerak aztertzea EHU MicroCreds planaren esparruan.
    f. Irakurketa trebakuntzako planak garatzea. Ikasleen irakurketa gaitasunak sendotzera bideratutako irakurketa praktika eraginkorrak proposatzea.

3. **Hezkuntza Baliabide Irekiak** (HBI) bultzatzea.

3 :: Ezagutza eskuratzea. Bildumak eta espazioak.

Informaziorako sarbide inklusibo, jasangarri eta eraginkorra bermatzen dugu, kalitatezko bildumak eta baliabideak kudeatuz, eta ikasteko, lankidetzan aritzeko eta sortzeko modu berrietara egokitutako gune fisiko eta birtualak garatuz.

1. **Bilduma kudeatzeko** eta baliabideen erabilera **ebaluatzeko** prozedurak hobetzea.
    a. Baliabide elektronikoen erabileraren analisi sistematikoa. Tresna estatistiko fidagarrien garapenean aurrera egitea: EZproxy Analytics.

2. Unibertsitateko kideen premia berrietara egokitutako **gune fisikoak** sortzen eta eraldatzen jarraitzea.
    a. **KUBO** espazioen garapena, erabiltzaileen erabilera esperientzia hobetuko duten funtzio anitzeko espazioak eta ingurune erakargarriak.
    b. Bilboko Medikuntza Fakultate berriko biblioteka abian jartzea.

4 :: Antolaketa, pertsonak eta gobernantza.

Kalitatera bideratutako antolaketa eremua indartzen dugu, honako hauetan oinarritzen dena: lankidetza, barne komunikazioa eta gobernantza eraginkorra, gardena eta estrategia instituzionalarekin lerrokatuta dagoena.

1. **Antolaketa eredua** berrikustea.
    a. Langileen profilak eta gaitasunak eguneratzea, erronka berriei aurre egiteko. Lan kargak berrikustea, gaitasunak gutxiegi erabiltzea eta eskuragarri dauden baliabideak gainditzen dituzten konpromisoak hartzea saihestuz.
    b. Lantaldeen eredua finkatzea. Horien funtzionamendu dinamikak antolatzea, agendak eta helburu argiak zehaztuz. Motibazioa eta proiektu komun bateko kide izatearen sentimendua indartzea.

2. Erretiroak aurreikustea eta **ondorengotza plan** bat egitea. Trantsizioak sistematizatzea. (EHU plan estrategikoarekin bat etorriz: 5. ardatza, 1.6 eta 1.7 ekintzak)

3. EHUko Gerentziarekin lan egitea, lanpostuak betetzean artxibo, biblioteka eta museoetako laguntzaileen eta fakultatiboen **eskala profesionalak aintzatestea** bermatuko duten neurriak premiaz ezartzeko.
    a. Zerbitzu betekizunen araudia aldatzea.
    b. Barne promoziorako deialdiak.

4. **Barne komunikazioa** hobetzea. Informazioa argia eta irisgarria izatea bermatuko duten komunikazio jardunbideak txertatzea.
    a. Prozesuen eta zereginen dokumentazioa eta normalizazioa.
    b. Unibertsitateko Bibliotekako FAQ egitea.
    c. Lankidetza lanerako tresnak txertatzea. “Gordetaldeen” sistemaren egitura berrikustea eta hobetzea.
    d. Langileen iritziak eta proposamenak jasotzeko mekanismoak definitzea.

5. **Datuetan oinarritutako gobernantzarantz** aurrera egitea. Datuak biltzeko eta adierazleak eraikitzeko prozesuak sistematizatzea, bibliotekaren jarduera ebaluatzeko eta erabakiak hartzea errazteko.
    a. Lantalde bat sortzea datuak aztertzeko.
    b. Rebiun sarerako datuak biltzeko prozesuak optimizatzea.

6. **Euskararen** erabilera sendotzea zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza gisa.
    a. Erabiltzaileentzako euskarazko prestakuntza eskaintza zabaltzea.

7. **Unibertsitateko Bibliotekaren arautegia** onartzea.

5 :: Eraldaketa digitala eta berrikuntza

Bibliotekaren bilakaera bultzatzen dugu, sortzen ari diren teknologiak txertatuz eta zerbitzu digital aurreratuak garatuz, aldatzen ari den ingurune batera etengabe egokitzen dela bermatuz.

1. **AA** inplementatzea, bibliotekako prozesuak hobetzeko.
    a. Lantalde berri bat sortzea, AA bultzatzeko.

2. **Azpiegitura teknologikoa** eguneratzea.
    a. Urteko plan teknologikoa prestatzea informazio eta komunikazio teknologien zerbitzuarekin lankidetzan.

3. **Zerbitzu berritzaileak** eskaintzea, erabiltzailearen esperientzian oinarrituta, eta lehendik dauden teknologiak ebaluatzea eta eguneratzea.
    a. Garapen berriak espazioak erreserbatzeko sistemaren aplikazioan.
    b. Automailegu eta inbentario sistemen ebaluazioa.
    c. KUBO espazioetan eskuragarri jartzeko teknologiei buruz unibertsitateko kideen proposamenak aztertzea.

4. OCLCk **WMSn eta Discoveryn** garatutako hobekuntzen jarraipena egingo dela bermatzea eta gure bibliotekan inplementatzea.



:: 03 / ZEHARKAKO ARDATZAK

:: KOMUNIKAZIOA

Gure jarduera guztiak jasoko dituen zeharkako ardatza izan behar du komunikazioak. Langileen artean norabide anitzeko barne komunikazioko kultura sortu nahi dugu eta gure zerbitzuei ikusgarritasun haundiagoa eman nahi diegu, bai unibertsitatean, bai unibertsitatetik kanpo.

1. Barne komunikazioa.
    a. Barne komunikaziorako kanal eta mekanismo eraginkorrak ezartzea, informazio fluxua bultzatzeko. Zerbitzuak kudeatzeko protokoloak eta eskuliburuak egitea zereginak behar bezala identifikatu, antolatu eta garatzeko.

2. Kanpo komunikazioa.
    a. Bibliotekaren proiekzioa indartzea unibertsitatean eta gizartean. Kanpoko erabiltzaileei gure zerbitzuen eta zerbitzuen arautegiaren berri hobeto ematea.
    b. Irudi korporatiboa errespetatzea.
    c. Beste biblioteka batzuekiko lankidetza indartzea, Rebiun sareko lantaldeetan partaidetza areagotzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko biblioteka inguruneetan presentzia bultzatzea.

:: KONPROMISO SOZIALA: BERDINTASUNA, INKLUSIOA ETA GARAPEN JASANGARRIA.

Berdintasunak, inklusioak eta garapen jasangarriak alderdi etikoa osatzen dute, bibliotekako jarduera guztietan egon beharko duen alderdia.

1. Bibliotekaren partaidetza bultzatzea EHUren konpromiso soziala indartzera bideratutako ekintza guztietan eta Plan Estrategikoko Ardatz Nagusiarekin lotutakoetan: 03. Alderdi etikoa. Konpromiso soziala: feminismoa, inklusibitatea eta garapen jasangarria.



:: 1. ERANSKINA / UNIBERTSITATEKO BIBLIOTEKAKO LANTALDEAK

Lantaldeak planaren jardun ildoak garatzen laguntzeko egitura operatiboa dira, eta koordinazioa, ezagutza trukatzea eta jardueren jarraipena egitea errazten dute.

:: PROZESU TEKNIKOEN ARLOA

- ESKURATZEAK

  Inprimatutako formatuan dauden monografiak eta argitalpen seriatuak eskuratzeko, kudeaketa, erosketa, dohaintza edo trukearen bidez.

- KATALOGAZIOA

  Bibliografia funtsen katalogazio, sailkapen eta kudeaketarekin zerikusia duten prozesu tekniko dokumentalen garapena.

:: INFORMAZIO ELEKTRONIKOKO BALIABIDEEN ARLOA

- BALIABIDE ELEKTRONIKOAK

  Baliabide elektronikoen kudeaketa, honako hauek barne: hautaketa, erosketa, berritzea, jarraipena eta erabileraren analisia.

:: ERABILTZAILEENTZAKO ZERBITZUEN ARLOA

- DISCOVERY

  Aurkikuntza tresna (Discovery) kudeatzea eta hobetzea, baita horren analisi funtzionala, konfigurazioa eta garapena egitea ere.

- ZIRKULAZIOA

  Zirkulazioko modulua eta mailegu arauak kudeatzea. Bere baitan biltzen du ekipamenduen maileguaren eta irakurketa postuen administrazioa.

:: ERABILTZAILEEN PRESTAKUNTZARAKO ZERBITZUEN ARLOA

- PRESTAKUNTZA IKASKUNTZA
  Prestakuntzaren plangintza, koordinazioa eta garapena graduko ikasleentzat. Prestakuntza arloko beharrak identifikatzea eta prestakuntza programak prestatzea.

- PRESTAKUNTZA IKERKETA
  Prestakuntzaren plangintza, koordinazioa eta garapena masterreko eta doktoregoko ikasleentzat, baita irakasle-ikertzaileentzat (IRI) ere. Prestakuntza beharrak identifikatzea eta prestakuntza programak prestatzea.

- BIDEOTUTORIALAK
  Ikaskuntza eta ikerketa arloetako prestakuntza taldeei laguntzeko taldea, ikus-entzunezko formatuan dauden prestakuntzako materialak diseinatu, prestatu eta eguneratzeko.

:: IKERKETARI LAGUNTZEKO ZERBITZUEN ARLOA

- EKOIZPEN ZIENTIFIKOA ETA BIBLIOMETRIA
  EHUko ekoizpen zientifikoaren zabalkundearekin, ikusgarritasunarekin eta ebaluazioarekin zerikusia duten zerbitzuen kudeaketa. Honako hauen administrazioa jasotzen du: Ekoizpen Zientifikoaren Ataria, ORCID, Dialnet eta ebaluazio blibliometrikorako tresnak.

- ADDI ERAKUNDE GORDAILUA
  ADDI erakunde gordailua kudeatzea eta mantentzea.

- ZIENTZIA IREKIA
  Zientzia irekiarekin zerikusia duten ekimenen koordinazioa. AddiData ikerketako datuen erakunde gordailua kudeatzea eta ikertzaileei laguntza zerbitzuak ematea sarbide irekiarekin eta zientzia irekiarekin lotuta.



:: TEKNOLOGIA BERRIEN ARLOA

- AA

  Adimen artifizialean oinarritutako soluzioak aztertzea eta ebaluatzea bibliotekako prozesuak eta zerbitzuak hobetzeko. Langileei zuzendutako prestakuntza ekintzak aplikatzeko eta sustatzeko aukerak identifikatzea.

:: ZEHARKAKO ARLOAK

- DATUEN KUDEAKETA

  Unibertsitateko Bibliotekako jardueraren jarraipenerako adierazleak prestatzeko beharrezkoak diren datuak ateratzeko, tratatzeko eta aztertzeko prozesuak garatzea eta mantentzea. WMSko Analytics moduluaren kudeaketa eta ustiaketa biltzen ditu.

- KOMUNIKAZIOA ETA WEBGUNEA

  Unibertsitateko Bibliotekako kanpo komunikazioaren kudeaketa. Honako hauek biltzen ditu: webgunea mantentzea, nortasun korporatiboa, sare sozialak, eta erakusketekin eta hedapen jarduerekin zerikusia duten gaiak.

- UNIBERTSITATEKO BIBLIOTEKAKO WMS KUDEAKETA SISTEMA

  Biblioteka kudeatzeko WMS sistemarekin lotutako nobedade, garapen eta komunikazioen jarraipena, OCLCko garapen banaketa zerrendaren bitartez. Jasotako informazioa aztertzea eta Unibertsitateko Bibliotekarako interesgarria dena zabaltzea.







:: 2. ERANSKINA / EHUren PLAN ESTRATEGIKOA. Konbergentzia eremu batzuk.



:: 1. ARDATZA / Irakaskuntza eta ikaskuntza

- 1.3. EKINTZA
  Hezkuntza berrikuntzarako proiektu kopurua eta horien eragina areagotzea EHUren i3 hezkuntza ereduaren garapenean.

- 2.3. EKINTZA
  EHUko mikrokredentzialak finkatzea, lan arloarekin eta arlo sozialarekin lotutako berezko ikasketa modalitate berri gisa.

:: 2. ARDATZA / Ikerketa

- 1.5. EKINTZA
  Unibertsitateko Biblioteka indartzea informazioa eta ezagutza kudeatzeko zerbitzu estrategiko gisa, ikerketari, bikaintasuneko ekoizpen zientifikoari eta sarbide irekiaren hedapenari bide emanez.

- 2.5. EKINTZA
  EHUko zientzia irekiari buruzko politika instituzionalaren ezarpen eraginkorra bultzatzea.

:: 3. ARDATZA / Transferentzia eta inpaktu soziala

- 3.1. EKINTZA
  EHUren transferentzia eta inpaktu sozialaren neurketa eta ebaluazio sistematikoa ahalbidetuko duten tresnak eta ekimenak sortzea eta abian jartzea.

:: 4. ARDATZA / Ezagutzaren hedapena eta dibulgazioa eta kultura sustapena

- **02.**Esperientzia Gelak bultzatzea.
- **03.** EHUren kultura politika indartzea.

:: 5. ARDATZA / Pertsonak eta komunitatea

- 1.6. EKINTZA
  Belaunaldi txandaketa egitea eta lantaldeak gaztetzea, erretirora igarotzeko neurrien bitartez, esperientzia eta ezagutza transmitituko direla bermatuta.

- 4.4. EKINTZA
  EHUalumni figura eguneratzea eta sendotzea, eta komunikaziorako, partaidetzarako eta inplikaziorako bideak ezartzea.

:: 6. ARDATZA / Euskararen normalizazioa eta hizkuntza plangintza

- 01. Euskararen erabilera sendotzea zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza gisa.

:: ARDATZ NAGUSIA / Gobernantza berria eta kudeaketa eraginkorra

Antolaketaren dimentsioa:
Koordinaziorako, partaidetzarako eta ebaluaziorako mekanismoak

Dimentsio tekniko eta operatiboa:
Kudeaketa tresna efizienteak eta eraginkorrak

Multizentro eta campus anitz izaera
Autonomia eta erantzukidetasuna
Konpromiso sozial eta kooperatiboa:
Feminismoa, inklusibotasuna eta garapen jasangarria

Dimentsio etikoa:
Konpromiso soziala

Dimentsio komunitarioa:
Pertenentzia sentimendua